

Euskaltegien Txokoa

Udal Euskaltegia

Hor zegok Koxka!!!

'Koxka', Hernaniko ezindu fisikoen elkarte da. Martin Zabalegi, lehendakariarekin, eta Luix eta Jexux bazkideekin bildu ginen beren ekintzei buruz hitz egiteko. / II




«Guri gertatzen zaiguna baliteke bihar zuri gertatzea» / III

HERNANI ETA TURISMOA

Hernanin eskaintza gero eta zabalagoa da / III

IV / Zer egin eta zer ikusi



Egileen argazkia / IV



Hor zegok Koxka!!!

'Koxka', Hernaniko ezindu fisikoen elkarte da. Martin Zabalegi, lehendakariarekin, eta Luix eta Jexux bazkideekin bildu ginen beren ekintzei buruz hitz egiteko.

KRONIKAKO irakurleei luzatuko dizkiegun galdera batzuekin emango diogu hasiera Koxka elkartekoekin izandako elkarrizketari.

1. Gustatzen al zaizu zure herriko kaleetan zehar paseatzea?

2. Gustatzen al zaizu zure koadrilarekin tabernetan poteatzea?

3. Eta gustatzen al zaizu kiroldegira joatea eta kirol pixka bat egitea?

Ba gauza hauek oso arruntak izaten dira ia jende gehienontzat, eta pentsatu gabe egiten ditugu, baina batzuentzat ez da hain erraza izaten. Badira ezin dutenak errepide bat gurutzatu espaloia dagoelako, badira tabernetan poteak hartzera sartu ezin direnak, ateak txikiak direlako edo eskailerak daudelako, eta badira ere kiroldegian igerilekuan laguntzarik gabe sartu ezin direnak. Gure inguruan mugikortasun arazoak dituzten pertsonak badaude, aulki gurpildunarekin edo muletekin mugitu behar dutenak, edo zentzuko arazoak dituztenak, adineko jendea ahaztu gabe, azken hauek ere arazo hauetakoren bat edo batzuk sufritzen dituztelako.

Arazoei konponbiea bilatzen

«Eta arazo hauek pixkanaka konpontzeko sortu zen Hernanin orain dela bi urte *Koxka* izeneko elkarte» dio Martinek. 2008an lau lagun hasi ziren, baina orain hogei hamar bat lagun daude elkartean. Urtean behin ohiko bilera orokorra egiten dute eta bertan, proiektuak eta helburu nagusiak adosten dituzte. Hori guztia aurrera ateratzeko, bi astean behin elkar-tzen dira Biterin, eta han erabakitzen dituzte eman beharreko pausoak eta egin beharrekoak.



Martin Zabalegi lehendakaria, eta Jexux eta Luix bazkideak.

Helburu nagusia, zerbitzu publikoak eskura izatea

Koxka kolektiboarentzat zerbitzu publikoak eskura izatea helburu nagusienetako bat da. Adibidez: kiroldegia, kultur etxea, euskaltegia, Udaltxea, osasun zentroa eta abar. «Kiroldegia bunker bat da guretzat, ez dago behar bezala guretzat egokituta, aldage-lak, dutxak, sarrerak, igerilekura jaisteko...» dio Luixek, hala ere, azpimarratu nahi dute oso pozik daudela bertako langileekin, eta ez dutela inolako arazorik behar duten laguntza modu atseginean lortzeko.

Ave Maria proiektuan interesa

Gaur egun, Ave Maria parkearen proiektuan daude interesatuta. *Koxka* elkarteak parke hau denontzat izatea nahi du, hau da, benetan «Mugarik Gabe» izatea. Horretarako, Udalarekin batera ari dira lanean beraiek ikusten dituzten beharrak proiektuan sartzeko.

«Aholku Batzordean ere hartzten dugu parte»

Etxe bizitzen lege berriarekin batera, batzorde berri bat sortu da Udaletxeko hirigintza sailean: Aholku Batzordea. Bertan, herriko elkarteek hartzten dute parte, herrian dauden proiektu berrien edo aldaketan inguruan iritziak emateko. «Gu ere hor gaude sartuta» dio Jexuxek. «Baina hor daukagun *Koxka* da, normalean txosten guztiak oso teknikoak izaten direla, eta oso epe laburrean jasotzen ditugula, eta gu ez gara horretan profesionalak. Guk dakiguna da zer behar ditugun».

Beste helburutako bat da, ezintasunen bat duten umeei udal zerbitzu eta espazio publikoetan ere disfrutatuta ahal izatea, adibidez, igerilekuko ludotekan, jolas-tokietan...

«Guri gertatzen zaiguna baliteke bihar zuri gertatzea»

HERRITARRAK sentsibilizatzea, ikusten dute beren kolektiboa gizartean integrazteko bide bezala. «Eguneroko lana, gora-behera batzuekin lortzen ari gara, baina gure egoera, gure oztupoak, kaleetako mugak... jendeak ezagutzea nahi dugu» dio Martinek.

Behin eta berriz esaten diogu gure buruari «guri gertatzen zaiguna baliteke bihar zuri gertatzea» dio Martinek. «Footinga egitea, paseatzea, tabernetan ibiltzea, gauza arruntak dira eta bat-batean, istripu edo gaixotasun baten ondorioz, gurpildun aulki batean egon zaitezke. Kanean espaloia ren koxka igo nahi duzunean, *Tourmalet* balitz

bezala izaten da» eta zure bidean eskailera topatzen baduzu, erne, prest egon zaitez *Quebrantahuesos* egiteko».

«Pentsatzen ari gara ona izango litzatekeela herriko poteo edo jardueraren bat antolatzea», diote Koxkako kideek. Hain zuzen ere, egun batean Hernaniko kaleetan *normala* deitzen zaion jendearekin, aulki gurpilduna erabiliz eta begiak estalita, poteoa egin edo dendaz denda ibili, ikusteko zer nolako trabak dituzten eguneroko funtzionamenduan benetan horrela ibili behar dutenek.

Batzuetan esaten digute politikoen gana jo behar dugula kontzientziatuzera,

bai, hori oso inportantea da, baina Koxkakoentzat garrantzitsuen pertsonak dira, «ze politikoak ere pertsonak dira eta gure beharrak guztiengana iristea nahi dugu».

«Gure kolektiboa jende aurrean aurkezteko, definitzen gaituen hitzari garrantzi handia ematen diogu. Uste dugu askotan erabiltzen diren hitzak, ez direla aproposenak eta horregatik, une honetan hitz egoki horren atzetik gabiltza» diote Koxkakoek.

«Hitzak ez dira neutroak edo aseptikoak» dio Luixek, «muxuak, fereka edo arma izan daitezke». *Elbarritu* hitzak ez du pertsona errespetatzen, arazo fisiko batenga-

tik ezin dugu pertsona baten izaera kalifikatu. Norberak duen gai-gabezi fisiko horri hitz bat jarri beharko genioke, beti ere pertsonaren integrazioari begira.

Beste aldetik, Martinek dioen bezala «izen unibertuala bilatzen ari gara Kantzerra hitzarekin bezala» hitz honek horrelako gaixotasun mota guztiak jasotzen ditu. Era berean, hitz horrek errespetagarria izan behar du pertsonekin. Adibidez, gaixotasunen munduan lehen zahar-dementia deitzen zitzaion gaixotasunari, gaur egun, Alzheimer da, *Baile san Vito* zelakoa, berriz, Parkinson.

Bukatzeko, «jendea ez da

gizartean saldu nahi duguten bezain perfektua. Gure inguruan denetatik dago, betaurrekodunak, aulkidunak, itsuak... eta ez gara iragarkiek bidaltzen dituzten mezuak bezalakoak» diote Koxkakoek. Errealitate hau oso argi ikusten dute ume-parkeetan, izan ere, parke hauek umeen lehenengo selekzioa egiteko prestatuta omen daude eta ez ume guztiak erabiltzeko. «Marinen entrenamendua egiteko dirudite» diote Koxkakoek.

Bizitzaren edozein arlotan integrazioa bilatu behar dugu, ez inor baztertu, azken finean denok gure bizitzan *koxkaren* bat daukagulako.

Hernani eta turismoa

Hernanin eskaintza gero eta zabalagoa da

Sagardotegiez aparte, badago Hernanin hain ezagunak ez diren aukerak, eta horixe bera bultzatu nahi du Udalak.

Egia da Hernanik ez daukala turismo tradizioarik eta ez dela herri turistiko bezala ikusten; gainera, turistikoki interesa duten hainbat elementu pribatuak dira: Chillida-Leku eta sagardotegiak, esate baterako. Dena den, orain dela bi urte, eta ikerketa bat egin ondoren, Udalak erabaki zuen turismo arloan sartzera. Izan ere, ikerketak erakutsi zuen Hernanik bazeuzkala aukera turistikoa, besteak beste, inguru naturala (Aiako Harriak parke naturalaren zati bat udalerraren barruan dago), monumentu megalitikoak,

Donejakue bidea eta enpresa ugari negoziorekin lotutako turismoa bultzatzeko. Eskalatzera ere jende asko etortzen da Hernanira, Santa Baraban dagoen gunera.

Hori dela eta, herriak dituen turismo aukerak garrantzeko, teknikari bat kontratatu zuen Udalak. Orain arte egindako lana foiletuak argitaratzea eta informazioa ematea da. Kaleratutako foiletuen artean daude Ibilbide Urdinak, Parke Botanikoari buruzkoa, eskalatzeko guneari buruzkoa, Hirigune Historikoa eta sagardoaren munda. Informazioa emateko,

berriz, urtean zehar Biteri kultur etxean gune bat dago foiletuak hartzeko eta udan turismo bulegoa jartzen dute Urbieta kalean.

Udalak asmoa du lan honekin jarraitzeko etorkizunean eta helburuak urtero jarri arren, badakigu hurrengo beste bi Ibilbide Urdinak ateratzea dela.

Nortzuk bisitatzen gaituzte Hernanin turismorik nagusia sagardotegietakoa da; hala ere, badago beste turismo mota bat ere. Chillida Leku da, dudarik gabe, Hernaniko lekurik bisitatue-

na. Hirigunetik lau kilometrorra bakarrik dago, baina jendea sarritan han gelditzen da. Turismo bulegoak dituen datuek baieztatzen dute ez direla herriraino etortzen.

Baina nongoak dira bisitatzen gaituztenak? Udaleko turismo teknikariak eskuratu dizkigun datuen arabera, Hernanira gehien etortzen direnak Euskal Autonomia Erkidegokoak dira (%51); ondoren, Estatukoak (%41a), batez ere, Kataluniakoak; eta gutxiago atzeritarrak (%8a). Dena den, datu hauek udan bakarrik jasotakoak dira.

Turismo aldetik Hernanik

daukan mugetako bat da lo egiteko eskaintza gutxi dagoela. Landetxe batzuek aparte, hiru leku daude: Zinkoenea Pentsioa, Txintxua Hotela eta Arrobi Ostaturia. Azken hau bisitatu genuen. Turismo teknikariaren bidez udako datuak lortu nahi genituen, eta ostaturioek urte osoko ikuspegi eman ziguten. Bertan, kontatu ziguten astean zehar, beraien bezeroak eraikuntzako langileak eta, batez ere, komertzialak direla. Asteburuetan, berriz, Kataluniakoak asko, baita mendizaleak eta ezkontzetara etortzen direnak ere, besteak beste.

Zer egin eta zer ikusi

Donejakue bidea:

Famatuena frantses bidea da, Orreagatik Logroñora doana, baina badago bariante bat Ergobiatik eta Hernanitik pasatzen dena, Barrualdeko bidea izenekoa, bariante hori Erdi Aroan sortu zen bide nagusian musulmanek erromesak mehatxatzen baitzituzten.

Bariante honetan, Hernani da lehenengo bi etapen arteko muga: Irundik Hernanira lehenengo eta Hernanitik Tolosara bigarrena. Lehenengoan, Hernanin egin behar dugun ibilbidea honakoa da: Urumea ibaia- ren ondotik, Florida auzora, handik Zinkoenea plazaraino, eta Kale Nagusian zehar Gudarien plazara. Bigarren etapa, berriz, hau da, Hernanitik Tolosara doana, Gudarien plaza hasten da, Gurutze Santuaren Santutxora, eta Urnietara iritsi baino lehen Portu auzoan bukatzen da.

Gure herria ibilbidearen igarobide garrantzitsua dugu eta horren lekukoa da Gurutze Santuaren Santutxoa, Leokaren ondoan.

Ibilbide Urdinak:

Herrian zehar egiteko ibilbide errazak dira, bi ordutan-edo eta familiarekin egin daitezkeenak. Lau ibilbide izango dira eta dagoeneko bi argitaratu ditu Udalak; alde batetik, Santa



Santa Barbara da lekurik aproposena aire librean eskalada egiteko.

Barbara mendian zehar ibiltzekoa: mendi buelta bat emateko ibilaldi zoragarria da. Bestetik, sagardotegiaren ingurukoa: bide honetan zubi esekiak ikus ditzakegu eta baserrien artean joateko aukera ematen digu. Laister beste biak argitaratuko dira, hain zuzen ere, Oindikoa eta Urruzonakoa.

Alde Zaharra:

Hernaniko Kaxkoa Euskal Herriko interes historiko-artistikodun guneeetako bat dugu. Alde zaharrak, Erdi Aroko kale eta eraikin gehienak mantentzen ditu. Eraikuntza nagusi gehienak XVI. mendetik XVIII. mendera artekoak dira. Nabarmentzekoak

dira dorretxeak, jauregiak eta armariak.

Chillida - Lekun ehun bat obra:

Zabalaga baserria XVI. mendeko eraikuntza da. 1982an erosi zuen baserria Chillida eskultoreak eta eskultura bat izango balitz bezala hustu

eta egokitu zuen.

Baserriak ehun bat obra biltzen ditu barruan. Arte aldetik, Euskal Herriko tokirik interesgarrienetako bat da. Urtean zehar hainbat ekintza ospatzen dira, horien artean ekainean udako Solstizioa naturaren zikloak ospatzeko.

Egileak: Udal Euskaltegiko ikasleak

